2015-X-20
Número **470.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Kontratu-pean

Enplegu prekarioa ezaugarritzen duten lanaldi partzialeko kontratuak gero eta ugariagoak dira eta zabaltzen ari dira etengabe. Datuek diotenez, Hego Euskal Herriko biztanleria okupatua gehitu bada, era honetako kontratuen ondorioz izan da. Eta honako datuak erabiltzen dituzte behin eta berriro langabezia datuak “makillatzeko”. Kontratu mota hauek betidanik emakumeei egin izan zaizkie bereziki, eta gaur gizonen artean ere gehitzen ari dira: halere lanaldi osoa ez dutenen %82a emakumeak dira, eta hau ez da kasualitatea. Lanaldi partzialeko kontratua feminizatu izana joera estrukturala da. Hainbat aldiz esan dugun moduan lanaren sexu-banaketaren eta genero-rolen jarraipenaren ondorio da. Emakumeentzako laneratzeko mekanismo bat da, baina baita prekarietate eta pobreziarako sarbidea ere.

Ezin ahaztu ere zainketarako behar besteko azpiegitura publikorik ez dagoenez, banakako irtenbide pribatua ematen zaie beharrizanei. Horregatik dira gizonezkoak kontratu hauetan gutxiengoa. Emakumekoentzat ondorioa agerikoa da: pobrezia eta prekarietatea areagotu egiten da euren artean. Ikusi besterik ez dago soldatetan, generoari begira, dagoen ezberdintasuna. Emakumeek soldata apalagoak dituzte, eta oraindik ere haien bikoteen diru-sarreraren osagarri gisa jotzen dira. Honek etorkizunerako gizarte-prestazioa kaskarragoak ekarriko ditu, bereziki erretiro garaian, alarguntsa pentsiotan edota langabezia prestazioetan. Bestalde, kontratu hauei lotzen zaizkio malgutasun neurri dezente, tartean ordu osagarri asko sartu behar delarik.

Hainbat alditan azaldu nahi izaten da kontratua lana eta bizitza kontziliatzeko formula gisa eta Europako iparraldearekin alderatu ikusteko han ere maiz erabiltzen dela. Ezberdintasuna, ordea, nabaria da. Hemen kontratu hauek ez dira borondatezkoak, ez da emakumeak eginiko hautu libre baten ondorio. Benetan emakume gehienek enplegu era hau beste erremediorik ez dutelako onartzen dute, ez baitzaie lanaldi osoko posturik eskaintzen. Beraz, badago gaiari nondik heldu eta baita aginte ezberdinei exijitu enplegu era honen iruzurrezko erabilera kontrola dezaten, berdintasuna eta duintasunaren izenean aurrera jo nahi badugu behintzat.




**Todo preparado para que este 24 de octubre se celebre en Bilbao la iniciativa Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternatibas**

# ¡ESTAS SON NUESTRAS ALTERNATIVAS!

Tras largos e intensos meses de preparativos todo está preparado para que este 24 de octubre se celebre en Bilbao *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternatibas*. Una iniciativa que tiene como objetivo sacar a la calle las diferentes alternativas con las que se están trabajando actualmente en Euskal Herria para conseguir un modelo social, económico y político diferente al actual, radicalmente injusto –unos pocos tienen casi todo y unos muchos no tienen casi nada– e insostenible con los cada vez más escasos recursos naturales del planeta.

El amplio programa elaborado, fruto del trabajo de muchos meses, es una muestra de la atractiva oferta que habrá el 24 de octubre en Bilbao. No hay más que abrir este mismo *Astekaria* y pararse unos minutos a leer las páginas centrales para ver que son más de 100 las actividades programadas. Charlas, mesas redondas, cine forums, documentales, talleres, exposiciones, ferias, animación callejera, música, actividades para niños y niñas...

La jornada comenzará a las 10:00 con el acto de bienvenida que se celebrará en la Carpa Principal. A partir de ese momento y durante todo el día, un sinfín de actividades. De este modo se culminará el trabajo que durante muchos meses han realizado miles de personas por toda Euskal Herria para demostrar que es posible un mundo más justo y solidario.

### UN DÍA LLENO DE ACTIVIDADES

El corazón de *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas* estará situado en el Arenal, donde estará tanto la carpa central como el resto de las carpas temáticas. Además, también habrá otros cuatros espacios físicos donde se acogerán diferentes ferias, así como numerosos locales de asociaciones y movimientos sociales que participan en esta iniciativa. Sin olvidar, por supuesto, las actividades que se desarrollarán en la calle, como la marcha en bicicleta por Bilbao, los talleres sobre jardinería ecológica en el Arenal, el *mintza-poteo* para fomentar el uso del euskera en la Plaza Nueva, las visitas guiadas a cargo de un grupo de arquitectos activistas o los numerosos espectáculos de animación callejera.

Pero, además, *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas* también es una magnífica oportunidad para pasarlo bien. Por todo el centro de Bilbao habrá animación callejera, puestos de comida y bebida, música, actividades para niños y niñas... Incluso quien quiera alargar el día hasta que el cuerpo aguante también tendrá ocasión. Para ello, después del acto final que comenzará a las 19:30 en la carpa principal, habrá una romería a cargo de Kaxianoren Alabak, Xabier Solano –cantante de Esne Beltza– y un montón de sorpresas más.
**¡El 24 de octubre nos vemos en Bilbao!**



### MASIVO APOYO POPULAR

**La iniciativa *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas* ha tenido un amplio respaldo social. Así lo evidencia el hecho de que hasta ahora hayan sido más de 150 las organizaciones sociales que de un modo u otro han participado los últimos meses en el proceso de preparación de esta iniciativa. El 20 de octubre, las organizaciones que respaldan la iniciativa hicieron un acto para apoyar Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas en el Arenal. En el acto, además de hacer un llamamiento a acudir el sábado a Bilbao, los movimientos sociales reunidos firmaron su adhesión a este iniciativa.**

## AUTOBUS ETA BAZKARI ZERBITZUAK

Milaka izango dira larunbat honetan Euskal Herri osotik zehar Bilbora hurbilduko diren pertsonak. Horregatik, eta batez ere urrutien bizi diren lagun horiek kontuan hartuta, ELAk autobusak antolatu ditu eskualde ezberdinetan. (Oharra: galdetu gertuen duzun ELAren egoitzan zure herriko autobusa zein ordutan ateratzen den). Izena emateko aski da **mrafundazioa@ela.eus** helbidera email bat bidaltzea.

Bestalde, Areatzako kaian egongo den Karpa Nagusian bazkaldu nahi duenak ere txartela aldez aurretik erosteko aukera bikaina dauka. 15 euroren truke bertako eta garaiko produktuekin egindako bazkari ederraz gozatu ahal izango du: hasteko udazkeneko entsalada, lurreko zein itsasoko produktu freskoekin prestatuta; ondoren bardeetako arroza garaiko barazki eta basatxerriko solomo xerradekin; eta, azkenburuko gisan, Orexako gazta sagar dultzearekin eta euskal pastela. Noski, edatekorik ez da faltako: ura, freskagarriak, zukuak, ardoa, garagardoa, sagardoa, kafea... Punta-puntako menu honekin gozatu nahi dutenek aski dute, kasu honetan ere, **mrafundazioa@ela.eus** helbidera email bat bidaltzearekin. (Oharra: leku kontuak direla eta 400 bazkari zerbitzatuko dira; horregatik, antolakuntzak txartela lehenbailehen erostea gomendatzen du).

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### NATURA GURE GAIA

**10:30 HMI** "Aldaketa klimatikoa trantsizio energetikoak eta alternatibak"
**Gorka Bueno, Luis González, Leire Urkidi**

**12:00 EKK** Gure gaia 15x12
"Alternativas a la gestión forestal actual", "Autoconsumo y democracia energética", "Ur publikoaren aldeko borroka", "Eskola jantoki ereduak", "Eredu agroekologikoak", "Erleak, problemática de las abejas", "Decrecimiento y buen vivir"

**16:00 PMAL** "Txiflando Sostenible" antzerkia. Gaur egungo errealitatearen parodia komikoa, gizakiok ditugun barne kontraesanak muturreraino eramanez. Naturaren eta jendartearen zapalkuntzara eramaten duen boterea eskuratzeko grina aseezina marrazten dute

**17:30 EKK** Gure gaia 15x12 (15 pertsonetako 12 bizipen) "Hondakinen kudeaketa. "Kontsumo arduratsua". "Por otro modelo de ciudad: movilidad sostenible". "Arrantza eta itsasoa". "Emakumeak eta lehen sektorea"

**10:30 etik aurrera EMPH Entzun, eman eta Parte Hartu Tailerrak**

10:00 Plantas aromáticas. Gure Gaia azokan (gaztelaniaz)

10:00 Bizikletak konpontzeko tailerra. Domoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

10:30 Zor ekologikoa. Azokako tailer txokoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

11:00 Paleetan hiriko ortu txikia Domoaren ondoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

12:00 Taller para vivir sin plástico/Plastikorik gabe bizitzea. Azokako tailer txokoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

12:00 Bioeraikuntzari buruzko tailerra. Domoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

13:00 Mugikortasuna 30km/o. Azokako tailer txokoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

16:00 Taller de desobediencia. Azoka guneko tailer txokoan (euskaraz eta gazteleraz)

16:00 Faktura elektrikoa. Domoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

17:00 Trantsizio energetikoa. Azokako tailer txokoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

17:30 Pautas para montar un vivero autogestionado de árboles autóctonos. Domoan (gaztelaniaz)

18:00 Hiriko ortuak, teoria eta praktika. Azoka guneko tailer txokoan (euskaraz)

18:00 CO2 isurketen kalkulua. Domoan (euskaraz eta gaztelaniaz)

**Egun osoan zehar:**

-Azukreari buruzko tailerra. Gure Gaia azokako postuetan (euskaraz eta gaztelaniaz)

-Sagardoa nola egin. Gure Gaia azokako postuetan (euskaraz)

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### ARRAGOA

**10:30 HMI** "Eraldaketa soziala euskaratik izango da ala ez al da izango?" G: **Paul Bilbao, Naroa Elortza, Ainhoa Larrañaga, Unai Fernández de Betoño. D: Maite Asensio**

**12:30 HMI** "Kultur sorkuntzak gaur egungo gizartea aldatzeko balio du?" Mahai ingurua + Word kafea
**G: Gotzon Barandiaran, Irantzu Lekue, Iñaki Olano, Maider Beloki**

**16:00** Hezkuntza eremuan egun martxan dauden esperientziak eredu hartuta gure auzo zein herrietan hezkuntza proiektu bat egiteko gakoak eskuratuko ditugu. Simultaneoki, honako hezkuntza esperientzia landuko ditugu: • Orioko herri curriculuma **Ruben Iglesias** (Euskaltzaindian) • Ikasle eleanitzak sortzen. **Bego Bitorika.** • Ondarroako hezkidetza proiektua. **Urtxintxa.** • Landa eremuko eskolak txikitasunean handi. **Nora Salbotx.** • Herri Unibertsitateak. **Iker de Luz.** • Oinherri herri hezitzaileak. **Urtxintxa.** • 0-3 ziklo hezitzaileak. Miren Oñate. • Kanpo espazioen antolaketa. **Aitziber Martínez de Lagos**

**18.00 PMAL** "Mintza poteo kulturala" Plaza barria- Areatza **Arantxa Vicero** bakarlaria, **Iratxe Ibarra eta Oihane Enbeita** bertsolariak. **Euskal Herria 2000** hip-hop talde bizkaitarra

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### KARPA ZENTRALA

**10:00 HASIERA / COMIENZO**

**10:30 BE** "Haurren asanblada". Haurrek ere edozein gairen inguruak iritzia eman dezakete aukera eman eta espazioak eskaintzen badizkiegu. Haurren asanblada haurren parte hartzea sustatzeko tresna izango da. **Urtxintxa eta Oinherria**

**12:00 HMI** "Herrialdeei begirada bat, burujabetza sozialerantz"
**G: Mario Zubiaga (Euskal Herria), David Fernández (Katalunya), Cat Boyd (Eskozia), D: Jule Goikoetxea**
Demokrazia auzoa

**14:00 BAZKARIA / COMIDA**

**17:00 HMI** "Sokole, ritmos y experiencias". Perkusio afrikarraren laguntzaz, musikaz hezi eta parte partu

**19:30 AMAIERA JAIALDIA / FIESTA FINAL**
Ekitaldia, erromeria
**(Kaxianoren Alabak, Xabier Solano) eta sorpresak**

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### AUZOEKONOMIA

**10:30 EKK** "Ekhi txanpona. Mikro hitzaldia"

**11:00 HMI** "Zein da kapitalismo heteropatriarkarrari alternatiba?" "Cuál es la alternativa al capitalismo heretopatriarcal?"
**G: Paul Nicholson, Cristina de la Cruz, Patxi Zabalo. M: June Fernandez**

**12:30 PMAL** "Finantza etikoak eta genero desberdintasunak". "Finanzas éticas y desigualdades de género".
**Bank-bang antzerki taldea**

**13:00 HMI** "Enplegu edo/eta lan emankor/ugalkorra?" "¿Empleo y/o trabajo productivo/reproductivo?
**Florent Marcellesi, Yolanda Jubeto, Manolo Sáez**

**16:00 HMI** "Ekintzailetasun sozialean murgilduz"
**D: Naroa Elortza. G: Beñat Irasuegi, Andoni Egia. Ondorioak: Oihane Enbeitak bertsotan**

**17:30 PMAL "Feminismo airlines".** Las caprichosas. Antzerkia. Kapritxosak garela esaten dugu gauzak beste era batean egiteko eskubidea aldarrikatzen dugulako

**18:00 HMI** "Prekarietateari alternatibak" **G: Igor Mera (ESK), Ana Perez (STEILAS), Garbiñe Aranburu (LAB), Joseba Villareal (ELA) D: HIRU sindikatua**

**G:** Gonbidatua **D:** Dinamizatzailea
**BE:** Bestelako Ekintzak
**DFZ:** Doku-zine forumak
**EKK:** Ikusi eta ikasi. Hezi eta hazi. Esperientzien kontakizun komunak
**EMPH:** Entzun, eman eta parte hartu. Tailerrak
**HMI:** Hitzaldi eta mahai-inguruak
**PMAL:** Performanceak, musika, animazioa eta ekimen ludikoak

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### PARTE HARTZEA, DEMOKRAZIA ETA SUBIRAUTZA

**Ekitaldi guztiak BILBOROCKen / Todas las actividades, en BILBOROCK**

**10:30 HMI** "Hemen lan eta bizi. Berton erabaki"
**G: Txiki Muñoz (ELA) eta Ainhoa Etxaide (LAB)
D: Ane Zabala (Hamaika Telebista)**

**12:30 HMI** "Euskal Herria herritarren burujabetzarantz, erronkak eta estrategiak".
**G: Indenpendentistak (Txutxi Ariznabarreta), Eleak (M. Begiristain), Bilgune Feminista (Saioa Iraola), Ekologistak Martxan (Iñaki Barcena)**

**16:00 DFZ** "This changes everything" **(Avi Lewis) Naomi Kleinen** azken liburuaren inguruko filmaren estrenaldia EHan

**17.30** DFZ "Sukaldetik plazara. Ipar Euskal Herriko emazteen askapen mugimenduaren historia"
**Emagin, Bilgune Feminista**

## ALTERNATIBEN HERRIA BILBO

### BIZITZA ANITZAK ETA DUINAK

**11:00 PMAL** "Arte eszeniko eta plastikoen ikuskizuna eta tailerra"Arte eszeniko eta plastikoen uztartzea, herritarrekin. Dantza integratuko tailerra eta mural erainkuntza. **Artaka Kultur Elkartea**

**12:30 PMAL** "Umeak herria eraikitzen" Eskultura, pintura eta musika uztartuko duen tailer irisgarria. Helduek zein umeek parte hartu ahal izango dute. Umeen eskuek imajinatzen duten herri edo auzoak eraikiko dituzte. **Roke grafitilaria, Elentxu Zeinu Hizkuntzako interpretea, 11 kolore eta Akejenber**

**16:00** "Latidos del tribunal" kale antzerkia. Indarkeria sexista eta emakumeen giza eskubideen urraketa salatzen duen kale antzerki ikusgarria

**16:30 EMPH** "Viruta" kontzertua eta tailerra. Kantautorea, transexuala eta prekario baten eskutik musika transfeminista, errebeldea eta maitasun erromantikoaren mitoen suntsiketaren tailerra.

**18:00 PMAL** "Puro luego" Musika taldea

**19:00 PMAL** "Kankaneo" kale antzerkia ikuskizun dinamiko, dibertigarri eta zirikatzailea non ikusleek agintzen duten.

### ELA insta al Parlamento de Navarra a poner en marcha una comisión de investigación sobre el tema

# 3,9 MILLONES A PAGAR, AL MENOS, 120 SUELDOS EN UGT, CCOO Y CEN




ELA emprenderá acciones judiciales para esclarecer la actuación del Servicio Navarro de Empleo (SNE), que en 2015 destina 3,9 millones de euros a pagar, al menos, 120 sueldos de la patronal navarra CES y los sindicatos UGT y CCOO. Asimismo, ELA insta a las diferentes fuerzas políticas a poner en marcha una comisión de investigación y a no apoyar los presupuestos si no cambia radicalmente el modelo de funcionamiento del SNE, empezando por suprimir los convenios bilaterales destinados a sufragar el funcionamiento de estas organizaciones empresariales y sindicales. ELA exige supresión de los convenios del SNE con estas organizaciones, que sufragan sus gastos generales (700.000 euros anuales) a cuenta del erario público, al tiempo que critica que el nuevo ejecutivo foral oculte en los convenios bilaterales de 2015 qué cargos de la estructura de UGT, CCOO y CEN se abonan con cargo a los presupuestos.

## UN FRAUDE QUE VIENE DE LEJOS

ELA ha tenido acceso a 17 convenios firmados para 2015 entre el SNE y UGT, CCOO y CEN. Hasta ahora se conocía el dinero público destinado (10,2 millones), pero no el contenido concreto de los convenios. Además, la última denuncia de ELA sobre responsables de UGT y CCOO cobrando sus nóminas del Presupuesto de Navarra se refería a 2014, y hoy contamos ya con los datos de 2015, aún más escandalosos. De entrada, el dinero para formación en el empleo que debe asignarse por concurso abierto se ha camuflado bajo convenios para concedérselo directamente a estas tres organizaciones. Además, estas partidas del Presupuesto de Navarra de 2015 se destinan a financiar las estructuras, personas y gastos ordinarios de UGT, CCOO y CEN. De hecho, casi todos estos convenios reconocen como actividades a desarrollar las funciones ordinarias de cualquier organización sindical (nada que ver con formación), tales como visitas a empresas, realización de estudios, impresión de folletos informativos, atención de consultas…

Entre los datos disponibles, destacan algunos por el uso ilegítimo de fondos públicos. Así, en esos 17 convenios se destinan en total 3,9 millones de euros a pagar nóminas de empleados/as de UGT, CCOO y CEN, cifra que daría para abonar unos 122 salarios anuales (coste laboral medio en Navarra). Y lo más grave: esa cifra no incluye el pago a docentes de cursos, recogido en otras partidas. En el caso de la CEN, además, figuran 1,7 millones de euros destinados a charlas y conferencias para su propia promoción, con pagos de miles de euros a ponentes bien conocidos.

ELA denuncia, asimismo, que el nuevo Gobierno de Navarra oculta la identidad de las más de 100 personas que cobran su nómina directamente del Presupuesto de Navarra de 2015 bajo la excusa de la protección de datos. En opinión del sindicato, es un argumento sin consistencia ya que los mismos convenios del 2014 (con UPN en el Gobierno) se publicaron. Además, tras analizar la Ley de Protección de Datos y la Ley Foral de Transparencia, ELA entiende que no existe respaldo jurídico para esta labor obstaculizadora del gobierno de Navarra actual, que se está dedicando a encubrir las prácticas de CEN, UGT y CCOO. Por si fuera poco, en esos 17 convenios se destinan 718.000 euros a sufragar los gastos generales de UGT, CCOO y CEN (luz, agua, teléfono, dietas, kilometrajes de sus liberados…). Destacar que UGT, CCOO y CEN continúan sin dar una explicación creíble sobre este escándalo.

# LABURREAN / BREVES

### • Gerdauk berehala eman behar du bere lantegien etorkizunari buruzko informazioa

Iragan astean Frantziako hainbat hedabidek jakitera eman zutenez, Gerdauk Europako Altzairu Berezien saila salgai jartzea erabaki du. Albiste horren aurrean, ELAk lantegien etorkizunari buruzko informazioa ematea exijitu nahi dio multinazionalari. Gerdauko langileek Euskal Herrian lan-baldintzei dagokienez murrizketa handiak jasan dituzte, horrela lantegien etorkizuna bermatuko zela agindu zitzaielarik. Enpresa salgai dagoela egia balitz, berriro agerian geratuko litzateke honelako konpainietan emandako hitzak ez duela balio handirik.

### • Arabako ostalaritzako 40 enpresen aurkako salaketak erregistratu dira Lan Ikuskaritzan

Arabako ostalaritzaren sektorean ordezkaritza duten sindikatuek sektoreko 40 enpresen aurkako salaketak erregistratu dituzte Lan Ikuskaritzan. Salaketek erakusten dutenez, enpresa horiek ez dute sektoreko hitzarmena betetzen, langileen eskubideen kontrako eraso larriak eginik: kontratazioan iruzurra, lan egutegirik ez finkatzea, gaueko zein igande eta jai-egunetako plusa ez ordaintzea, lanaldi murritzeko langileen kotizazio eta ordainketak irregularrak...

### • Pobrezia maila azken 25 urteetako altuena da

Urriaren 17a pobreziaren aurkako nazioarteko eguna izan zen. Hori dela-eta, ELAk egun horren bueltan antolatu ziren ekimenetan parte hartu zuen. Gure sindikatuak arazo honen larritasunaz ohartarazi nahi du. Izan ere, ezin dugu ahaztu pobrezia maila azken 25 urteetako handiena dela Euskal Herrian.

### • Otegiren eta Diezen askatasunaren alde

Urriaren 17an Bateragune auzia dela-eta oraindik preso segitzen duten Arnaldo Otegiren eta Rafa Diezen askatasunaren aldeko manifestazioa egin zen Donostian. ELAk bat egin zuen deialdiarekin, eta sindikatuaren ordezkaritza zabala bertan izan zen. Bestalde, ELA ere presente egon zen urriaren 12an Iruñako kaleetan; egun horretan Askapenaren aurkako auzian auziperatutako bost lagunei elkartasuna adierazteko manifestazioa egon zen. Epaiketa urriaren 19an hasi zen.

### • TTIP hitzarmenaren aurkako mobilizazioak



Urriaren 10a TTIP hitzarmenaren aurkako nazioarteko mobilizazio eguna izan zen. Hori dela-eta, Euskal Herriko *Stop TTIP* plataformak –ELA bertako kide da– hainbat ekimen antolatu zituen egun horretarako Gasteizen, Donostian, Bilbon eta Iruñean. (Ondoko irudian argazki horien mosaikoa)

### • ELAk ez du Lanbideko akordioa sinatuko

LAB, CCOO eta UGT sindikatuek akordioa lortu zuten irailaren 30ean Eusko Jaurlaritzarekin Lanbiden. Hurrengo egunean egindako asanbladetan ELAren afiliatuek ezezko borobila eman zioten akordioari. ELAren ustez akordioa eskasa da, eta ez die ez langileen arazoei ez erakundeen beharrizanei konponbiderik ematen.

### • Europako Sindikatuen Konfederazioren kongresua

ELAk parte hartu zuen irailaren 29tik urriaren 2a bitartean Europako Sindikatuen Konfederazioak egin zuen XIII. kongresuan. ELAk kongresuan defendatu zuenez, egun dagoen indar-erlazioa hobetzea hil ala biziko erronka da sindikalgintzarentzat. Zentzu horretan, Adolfo Muñoz idazkari nagusiak azpimarratu zuenez, horretarako funtsezkoak dira "proposatzeko ahalmena eta kontu organizatiboei lehentasuna ematea".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207